

# EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA



# BOLETÍN OFICIAL DEL PAÍS VASCO

Itundutako posta-ordaina: 8/98

Internet

Franqueo concertado: 8/98

Administrazioa: Donostia kalea, 1

www.euskadi.net

Administración: c/ Donostia-San Sebastián, 1

Legezko Gordailua: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

Depósito Legal: VI - 286 - 78 - VITORIA-GASTEIZ

## Xedapen Orokorrak

### KULTURA SAILA

#### Zk-7157

332/2003 DEKRETUA, abenduaren 23koa, arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko «Gure Artea» sariak arautzen dituena.

Jarduera-eremu gisa Kultura Sailari egokitu zaizkion ahalmenen barruan, nabarmentzekoak dira sortzaileei begira egindako politikaren bidez arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzea eta hedatzea.

Helburu hori lortzeko, Kultura Sailak «Gure Artea» saria sortu zuen, ahalmen sortzailearen garapena sustatzeko, kontuan hartuta sariak sorkuntza artistikoaren estimulua eta onarpena eta lanaren hedapen publikorako bideak sustatzen dituztela.

Sariei proiektzio handiagoa emateko eta bai lanaren bai egileen ibilbide artistikoaren balorazioa hobeto egin ahal izateko, «Gure Artea» sarietarako deialdia bi urtetik behin egiten da.

Lehendakariaren uztailaren 16ko 7/2001 Dekretuan (Euskal Autonomia Erkidegoan Administrazioako Sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituena eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituena) eta otsailaren 5eko 34/2002 Dekretuan (Kultura Sailaren egitura organikoari buruzkoa) finkatutakoa kontuan hartuta,

Kultura Sailburuak proposatuta, 2003ko abenduaren 23an egindako saioan Gobernu Kontseiluak aztertu eta onartu ondoren,

## Disposiciones Generales

### DEPARTAMENTO DE CULTURA

#### Nº-7157

DECRETO 332/2003, de 23 de diciembre, por el que se regulan los Premios «Gure Artea» para la promoción de las artes plásticas y visuales.

En el marco de facultades que al Departamento de Cultura le vienen atribuidas como áreas de actuación, caben destacar las del fomento y difusión de las artes plásticas y visuales a través de una política orientada a los creadores.

Para lograr este objetivo, el Departamento de Cultura creó los Premios «Gure Artea», a los efectos de incentivar el desarrollo de la capacidad creativa y teniendo en cuenta que los premios proporcionan estímulos y reconocimiento a la creación artística, así como causas para la difusión pública de la obra.

Con el fin de dar mayor proyección a los Premios y posibilitar al efecto una mejor valoración tanto de la obra como de la propia trayectoria artística de los autores, los Premios «Gure Artea» vienen siendo convocados con carácter bienal.

Atendiendo a lo establecido en el Decreto 7/2001, de 16 de julio, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, así como en el Decreto 34/2002, de 5 de febrero, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Cultura,

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 23 de diciembre de 2003,

## XEDATU DUT:

*1. artikulua.* Helburua eta deialdia.

1.– Dekretu honen helburua da Arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko «Gure Artea» sariak arautzea.

2.– «Gure Artea» sariak zenbateko bereko hiru sari izango dira eta bi urtetik behin egingo da horiek eskuratzeko deialdia Kultura Sailburuaren Aginduren bidez. Agindu horretan, sarien helburua, sarien zenbateko ekonomikoa eta hautagaiak aurkezteko epea –inoiz ez hilabete baino laburragoa– zehaztuko dira.

*2. artikulua.*– Baldintzak.

1. Euskal Autonomia Erkidegoan jaio den edo erkidego horretan helbide administratiboa duen edozein pertsona fisikok aurkeztu ahal izango du «Gure Artea» sarietara.

2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta horren mendeko erakunde autonomoren batek emandako izaera bereko laguntzaren baten esparruan itzultze- edo zigor-prozedurak abiarazi badira eta oraindik izapideak egiten ari badira, sarien esleipena eta, hala badagokio, sariak ematea delako prozedurak amaitu arte baldintzatuta egongo dira.

*3. artikulua.*– Hautagaiak aurkeztea

1.– Hautagaiak dokumentazio honekin batera aurkeztu beharko dituzte egileak berak:

– Sarien deialdiaren eranskin gisa argitaratuko den eskaera-inprimakia, behar bezala beteta.

– 2. artikuluan finkatutakoa betetzen dela egiaztatze dokumentazioa; horretarako NAN konpultsatua entregatu behar da, eta, bestela, Euskal Autonomia Erkidegoko herriren batean errolatuta dagoela frogatzen duen agiria.

– Egilearen ibilbide artistikoaren curriculum.

– Ezinbestekoa da edozein teknika erabilia egindako lau lanen dokumentazioa aurkeztea.

– Sariketara aurkeztutako lau lanen argazki bana koretan (18x24 cm neurrikoak); lanek gehienez 3 metro izan dezakete alderik handienera. Instalazio bat bada, epaimahaiak hartuko du kasuan kasuko erabakia. Argazki bakoitzaren atzean egilearen izen-abizenak, izenburua, erabilitako teknika eta lanaren dimentsioak adieraziko dira.

– Parte-hartzailearen batek bideo-lana aurkeztu nahi badu, kopia bat VHS formatuan aurkeztu behar du; DVDn aurkezten diren kopiak formatu estandarrean egon behar dute; CD-ROMen aurkeztutakoek PCn erabiltzeko modukoak izan behar dute.

## DISPONGO:

*Artículo 1.*– Objeto y convocatoria.

1.– Es objeto del presente Decreto regular los Premios «Gure Artea» para la promoción de las artes plásticas y visuales.

2.– Los «Gure Artea» consistirán en tres Premios de igual cuantía, que serán convocados bienalmente por Orden de la Consejera de Cultura. En dicha Orden constará en todo caso el objeto de la misma, la cuantía económica destinada a los Premios y el plazo de presentación de las candidaturas, que en ningún caso será inferior a un mes.

*Artículo 2.*– Requisitos.

1.– Podrán optar a los Premios «Gure Artea» todas aquellas personas físicas nacidas en la Comunidad Autónoma del Euskadi o con vecindad administrativa en el territorio de dicha Comunidad.

2.– La adjudicación y, en su caso, la entrega de Premios quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

*Artículo 3.*– Presentación de candidaturas.

1.– Las candidaturas, que se presentarán por el autor, deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

– Impreso de solicitud, debidamente cumplimentado, que será publicado como anexo a la convocatoria de los Premios.

– Documentación acreditativa del cumplimiento de lo previsto en el artículo 2, aportando a tal efecto copia compulsada del DNI y, en su caso, certificado de empadronamiento en un Municipio de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

– Currículo de la trayectoria artística del autor.

– Será necesario presentar la documentación correspondiente a cuatro obras realizadas en cualquier técnica.

– Fotografía en color 18x24 cm, de cada una de las cuatro obras presentadas a los Premios, y que en ningún caso excederán de los 3 metros en la mayor de sus dimensiones. En el caso de que se trate de una instalación el Jurado será quien decida sobre este particular. Al dorso de cada fotografía se indicarán nombre y apellidos del autor, título, técnica y dimensiones de la obra.

– En el caso de que la participación se realice con trabajos en vídeo, deberán presentar una copia en formato VHS; Los trabajos en DVD se presentarán en formato estándar; Los trabajos en CD-ROM deberán presentarse bajo soporte PC.

2.– Eskaerak eta dokumentazioa helbide honetara bidali behar dira:

Kultura Saila.

Kultura Sorkuntza eta Hedapen Saila.

Eusko Jaurlaritzan

– Donostia kalea, 1/01010 Gasteiz

– Andia kalea, 13/20004 Donostia.

– Kale Nagusia, 85/48011 Bilbo

Erref.: «Gure Artea» sariak, ... urtea.

3.– Eskaerak zuzenean edo azaroaren 26ko 30/1992 legeko 38.4 artikuluan (Herri-administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Jardunbide Erdideari buruzkoa) aurreikusitako edozein bitartekoren bidez aurkeztu ahal izango dira.

**4. artikulua.**– Eskaeretako akatsak konpontzea.

Kultura Sorkuntza eta Hedapen Sailak aztertzen duenean ikusten bada bidalitako dokumentazioak ez duela punturen batean Dekretu honetan erabakitakoa betetzen, zuzendaritza horrek eskaera egin duten sinatzaileei jakinaraziko die 10 eguneko epea dutela okerak zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko; hori egiten ez badute, eskaerari uko egin diotela ulertuko da, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Jardunbide Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71.1 artikuluan finkatutakoaren araberako ebazpena igorriko da.

**5. artikulua.**– Sariak kudeatzeko organoa.

Dekretu honetan aurreikusitako sariak emateko kudeaketa-lanak Kultura Sorkuntza eta Hedapen Sailak egingo ditu.

**6. artikulua.**– Epaimahaia.

1.– «Gure Artea» Sarien epaimahaia ospe handiko lau kidek osatuko dute; kide horiek Kultura Sailburuak hautatuko ditu eta horietako bat epaimahaiburu eta antolatutako erakusketetako komisarioa izango da.

2.– Epaimahaia nork osatuko duten Kultura sailburuaren agindu baten bidez emango da jakitera, eta epaimahaiaren epaia kaleratu aurretik argitaratuko da Eusko Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

**7. artikulua.**– Hautagaien aukeraketa eta lanak aurkeztea.

1.– Epaimahaiak egingo du aurkeztutako txostenen ebaluazio artistikoa, bere jakintza leialaren eta iritzia-aren arabera, eta epaimahaiak aukeratuko ditu lehiaketarako lanak.

2.– Hautatutako lanak Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak finkatutako leku eta egunean aurkeztu behar dira, eta lan horiekin egindako erakusketan erabakiko

2.– Las solicitudes y documentación se remitirán a:

Departamento de Cultura.

Dirección de Creación y Difusión Cultural.

Gobierno Vasco

– Donostia-San Sebastián, 1/01010 Vitoria-Gasteiz

– Andía, 13/20004 Donostia-San Sebastián

– Gran Vía, 85/48011 Bilbao

Ref.: Premios «Gure Artea», año .....

3.– Las solicitudes podrán presentarse bien directamente, o por cualesquiera de los medios previstos en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Artículo 4.**– Subsanación de defectos de las solicitudes.

En el caso de que analizada por la Dirección de Creación y Difusión Cultural la documentación remitida, se advirtiera que en algún punto no cumple lo exigido en el presente Decreto, los firmantes de tales solicitudes serán requeridos por dicha Dirección para que en el plazo de 10 días subsanen las faltas o presenten los documentos preceptivos con la indicación de que si así no lo hicieran se les tendrá por desistidos en su petición, previa resolución emitida al efecto de conformidad con establecido en el artículo 71.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Artículo 5.**– Órgano de gestión de los Premios.

Corresponderá a la Dirección de Creación y Difusión Cultural la realización de las tareas de gestión de la concesión de los premios previstos en el presente Decreto.

**Artículo 6.**– Jurado.

1.– El Jurado de los Premios «Gure Artea» estará compuesto por cuatro miembros de reconocido prestigio designados por la Consejera de Cultura, uno de los cuales ejercerá la Presidencia del Jurado y será el Comisario de las exposiciones que se organicen.

2.– La composición del Jurado se hará pública mediante Orden de la Consejera de Cultura, debiendo publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco con anterioridad al fallo del Jurado.

**Artículo 7.**– Selección de candidaturas, y presentación de las obras.

1.– Corresponderá al Jurado la evaluación artística, a su leal saber y entender, de los dossiers presentados, así como la selección de las obras a concurso.

2.– Las obras seleccionadas deberán presentarse en el lugar y fechas que sean determinados por el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, para formar

dira sariak. Atal horiek Sarien deialdian zehaztuko dira.

3.– Hautatutako lanak bidaltzeko garraio-gastuak hautagaiek ordainduko dituzte. Lan guztiak behar bezala bilduta aurkeztu behar dira, itzulketan berriro erabiltzeko moduko bilgarriekin.

4.– Hautatutako lanak utzi beharreko leku eta egunean utzi ondoren, Eusko Jaurlaritzak hartuko du bere gain haiek zaintzeko ardura eta Eusko Jaurlaritza arduratuko da jatorrizko lekura itzultzeaz, betiere, Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan.

#### 8. artikulua.– Esleitzeko prozedura.

1.– Halaber, epaimahaiaren lana izango da parte-hartzaile hautatuei sarien erabakiaren berri jakinaraztea, eta erabaki hori hartzeko kontuan izan dituzten irizpideak –alderdi plastiko eta estetikoari buruzkoak– idatziz azalduko dituzte.

2.– Epaimahaiaren edozein erabaki hartzeko, kideen gehiengoaren aldeko botoa behar da; berdinketa gertatuz gero, lehendakariaren kalitateko botoaren bidez erabakiko da.

3.– Epaimahaiaren erabakia Kultura sailburuaren aginduaren bidez eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, erabakia hartu eta handik hila bategi batera gehienez. Hala ere, sarien esleipena pertsonalki jakinaraziko zaie irabazleei.

4.– Sariak eman gabe gera daitezke, eta epaimahaiak idatziz jasoko du erabaki hori hartzeko arrazoia.

5.– Sarien zenbatekoak banaezinak dira.

6.– Sarien erabakia jakinarazi eta publiko egiteko epea gehienez sei hilekoa izango da, dagokion deialdia argitaratu denetik kontatzen hasita. Epe horretan jakinarazpenik kaleratzen ez bada, eskaerak atzera bota ditzake ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Jardunbide Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 44.1 artikuluan finkatutakoaren arabera.

#### 9. artikulua.– Sari-banaketa.

1.– Saria ordainketa bakarrean ordainduko da, sari-tuari dagokion zenbatekoaren transferentziaren bidez, 8. artikuluko 3. puntuari aipatzen den Kultura sailburuaren agindua argitaratzen denetik gehienez ere bi hileko epean.

2.– Kultura Sailak erakusketa kolektiboak antolatuko ditu hiru artista sarituen lanekin, ospe handiko arte-zentroetan, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai erkidegotik kanpo; gainera, lanak katalogatuko ditu, betiere, artista horiek sustatzeko eta horien lanak zabaltzeko.

parte de una exposición en cuyo marco se fallarán los premios. Dichos extremos se detallarán en la convocatoria de los Premios.

3.– Los gastos de transporte de envío de las obras seleccionadas serán por cuenta de los candidatos. Todas las obras deberán presentarse embaladas de forma adecuada, con embalajes reutilizables para su devolución.

4.– Una vez depositadas las obras seleccionadas en el lugar y fechas para ello determinadas, el Gobierno Vasco asumirá su custodia y se encargará de su devolución al lugar de procedencia, siempre que sea dentro de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

#### Artículo 8.– Procedimiento de adjudicación.

1.– Corresponderá, asimismo, al Jurado la emisión del fallo de los Premios entre los participantes seleccionados, dejando expresa constancia de las consideraciones de orden plástico y estético que hayan llevado al correspondiente Acuerdo.

2.– Cualquier acuerdo del Jurado requerirá el voto favorable de la mayoría de los miembros, decidiendo el empate el voto de calidad del Presidente.

3.– El fallo del Jurado se hará público mediante Orden de la Consejera de Cultura que será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco, en el plazo de un mes a contar desde el día de su adopción. No obstante, la adjudicación de los Premios será notificada personalmente a los ganadores.

4.– Los Premios podrán declararse desiertos, dejando el Jurado expresa constancia de las circunstancias que dan lugar a dicha decisión.

5.– Los Premios serán indivisibles en su cuantía.

6.– El plazo máximo para notificar y hacer público el fallo de los Premios será de seis meses desde la publicación de la correspondiente convocatoria. En el caso de que no recaiga notificación expresa en plazo, podrán entenderse desestimadas las solicitudes a los efectos establecidos en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

#### Artículo 9.– Entrega de Premios.

1.– El abono de los Premios se realizará en un solo pago mediante transferencia al Premiado por la cantidad que corresponda., en el plazo máximo de dos meses desde la publicación de la Orden de la Consejera de Cultura referida en el artículo 8 punto 3.

2.– El Departamento de Cultura organizará exposiciones colectivas con obras de los tres artistas premiados en Centros de Arte de reconocido prestigio tanto dentro como fuera de la Comunidad Autónoma de Euskadi, encargándose también de su catalogación, siempre con el objeto de promocionar a estos artistas y difundir sus obras

**10. artikulua.**– Bateragarritasuna.

Sari hauek bateragarriak dira edozein erakunde publiko edo pribatuk helburu berarekin emandako beste laguntzekin.

**XEDAPEN GEHIGARRIAK**

**Lebena.**– Prozedurari dagokionez Dekretu honetan aurreikusitako gabeko ataletan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Jardunbide Erkideari buruzko azaroaren 26ko Legea aplikatuko da.

**Bigarrena.**– Dekretu honetan aipatzen diren sariak, bertan aurreikusitakoaz gain, azaroaren 11ko 1/1997 Lege Dekretuan onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko VI. tituluan finkatutakoaren bidez arautuko da.

**AZKEN XEDAPENA**

**Bakarra.**– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko abenduaren 23an.

Lehendakaria,  
JUAN JOSE IBARRETXE MARKUARTU.

Kultura sailburua,  
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

**Zk-7158**

338/2003 DEKRETUA, abenduaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoan ikus-entzunezkoen produktzioa sustatzeko finantziarioa arautzen duena.

Kulturaren eta arte ederren alorrean dituen eskumenen barruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak modalitate berriak ezarri nahi ditu Euskal Autonomia Erkidegoan ikus-entzunezko produktzioa sustatzeko eta sendotzeko. Ezarri nahi diren neurriek, gainera, Ikus-entzunezkoen i2i Programan emandako arauak dute oinarri. Programa hori Europako Batzordeak bultzatu du, Inbertsioetarako Europako Bankuaren laguntzaz, ikus-entzunezkoen enpresen egonkortasun finantzarioa sendotzeko.

Sustapen-politika hori zehazteko, nahitaezkoa da hainbat finantziario-lerro ezartzea, ez bakarrik proiektu-

**Artículo 10.**– Compatibilidad.

Los presentes Premios son compatibles con cualquier ayuda concedida por cualquier entidad pública o privada para la misma finalidad.

**DISPOSICIONES ADICIONALES**

**Primera.**– En lo no previsto en el presente Decreto en materia de procedimiento, será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Segunda.**– Los Premios a que se refiere el presente Decreto, además de lo previsto en el mismo, se regirán por lo establecido en el Título VI del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre.

**DISPOSICIÓN FINAL**

El presente Decreto entrará en vigor el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de diciembre de 2003.

El Lehendakari,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Cultura,  
MIREN KARMELE AZKARATE VILLAR.

**Nº-7158**

DECRETO 338/2003, de 29 de diciembre, por el que se regula el régimen de financiación para el fomento de la producción audiovisual en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

La Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, dentro de las competencias que ostenta en materia de cultura y fomento de las bellas artes, pretende establecer nuevas modalidades para la consolidación e impulso de la producción audiovisual en el ámbito de la Comunidad Autónoma. Las medidas que se establecen encuentran igualmente fundamento en las directrices emanadas del Programa i2i Audiovisual, auspiciado por la Comisión Europea en colaboración con el Banco Europeo de Inversiones en orden a reforzar la estabilidad financiera de las empresas audiovisuales.

Como concreción de dicha política de fomento, se entiende necesario articular una serie de líneas de finan-